

Gaixotasun larriak dituzten adingabeak zaintzeagatiko prestazio ekonomikoak

Nork jaso dezake laguntza hau?

Gizarte Segurantzaren sistemako edozein erregimenetan alta emanda dauden langile guztiek, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuan sartuta dauden funtzionarioek izan ezik, horiek aipatutako Estatutuko 49.e) artikuluan aurreikusitakoaren mende baitaude.

Zer babesten du prestazioak?

Minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duen adingabea zaintzeko lanaldia murrizten duten gurasoei, adoptatzaileei eta hartzailaiei (adopzio aurrekoak edo etengabeak) murrizketa-egoera hori babestuko die prestazioak, biek lan egiten dutenean.

Lanaldi murrizketaren ehunekoa kalkulatzeko, enpresa berean lan bera edo antzekoa egiten duen eta lanaldi osoz aritzen den pertsona baten lanaldia hartuko da aintzat, adingabeak legez zaintzeagatiko edo senideak zaintzeagatiko murrizketak kontuan izan gabe. Beren konturako langileen eta etxeko aldizkako langileen lanaldi teorikoa astean 40 ordukoa izango da.

Lanaldi osoz lan egiten duen antzeko langile baten lanaldiaren %25etik beherako iraupena duten lanaldi partzialeko kontratua dutenek ezingo dute prestazio hau jaso.

Zer bete behar dute eskatzaileek?

Honako hauek jaso ahal izango dute prestazioa: lanaldiaren iraupena, gutxienez, %50 murrizten duten besteren kontura edo beren kontura lan egiten

dutenek eta parekatuek, hala gizonezkoek nola emakumezkoek, baldin eta honako **baldintza hauek** betetzen badituzte:

- Adingabe bat izatea beren kargura, gaixotasun larrien zerrendako gaixotasunen bat izateagatik ospitalean denbora luzez egon behar izan dena eta zuzenean, modu jarraituan eta etengabe zaintzeko –hala ospitalean daudenean, nola ondoren– premia duena. Denbora luzeko ospitaleratzearen parekoa izango da adingabeak mediku tratamendua jarraitzea edo etxean zaintzea, diagnostikoa egin ondoren gaixotasun larriagatik ospitaleratuta egon ondoren.

-Bi gurasoak, adoptatzaileak edo hartzaileak afiliatuta eta alta emanda egon beharko dira Gizarte Segurantzaren sistemaren erregimenetako batean, non eta bietako bat ez dagoen dagokion elkargo profesionalak ezarritako gizarte aurreikuspeneko mutualitateren batean nahitaez sartuta.

-Eskatzaileak honako gutxieneko **kotizazio-epe hauek** egiaztatu beharko ditu:

Jardunaldi murrizketaren egunean 21 urte baino gutxiago baditu, ez zaio gutxieneko kotizazio-eperik eskatuko.

Jardunaldi murrizketaren egunean 21 eta 26 urte artean baldin baditu: 90 egun murrizketaren hasierako aurre-aurreko 7 urteen barruan edo 180 egun kotizatu lan-bizitzan zehar, aipatutako data baino lehen.

Jardunaldi murrizketaren egunean 26 urte baino gehiago baldin baditu: 180 egun murrizketaren hasierako aurre-aurreko 7 urteen barruan edo 360 egun kotizatu lan bizitzan zehar, aipatutako data baino lehen.

-Beren kontura lan egiten duten langileek egunean izan beharko dituzte Gizarte Segurantzaren kuoten ordainketak.

Minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duen adingabe kopurua gorabehera, guraso, adoptatzaile edo hartzaile bakarria balia daiteke prestazioaz. Hala ere, prestazioa jasotzeko txandatu ahal izango dira, hilabete baino gehiagoko epeetan.

Zer agiri behar dira prestazioa eskatzeko?

-Gurasoen, adoptatzaileen edo hartzaileen NANaren, AIZren edo pasaportearen kopia. Adingabea 14 urtetik gorakoa izanez gero, berearen kopia ere bai.

-Familia-liburuaren kopia edo erregistro zibileko inskripzioaren ziurtagiria, adingabea ageri denekoa. Adopzio, tutoretza edo harreraren kasuetan, egoera horiek aitortzen dituen ebazpen judiziala.

-Enpresaren ziurtagiria, honako alderdi hauek zehazten dituen: eguneroko oinarri arautzailea, lanaldi murrizketaren ehunekoa eta horren hasiera-data.

-Adingabea tratatzen duen Osasun Zerbitzu Publikoko medikuaren ziurtagiria, alderdi hauek zehazten dituen: adingabeak gaixotasun larrien zerrendako zer gaixotasun dituen, noiz ospitaleratu zuten, eta zaintza zuzena, jarraitua eta etengabea zenbat denboraz behar duen.

-Eskatzaileak bere kontura egiten badu lan, jarduera profesionalaren murrizketa ehunekoari –40 orduko asteko lanaldiarekiko– buruzko berariazko adierazpena eta murrizten duen jarduera profesionalaren parteari dagokion jarduera-egoerari buruzko adierazpena.

-Bi guraso, adoptatzaile edo hartzaileen arteko akordioa, prestazioa bietako zeinek jasoko duen adierazten duena.

-Adingabearen txosten mediko eguneratua, adieraziz zer zaintza zuzen, jarraitu eta etengabe behar dituen adingabeak.

(Aurreko ereduak webgune honetako formularioen eta inprimakien atalean deskarga ditzakezue).

Noiz eteten edo iraungitzen da prestazioa?

Prestazioa honako kasu hauetan etengo da:

- Kontingentzia arruntengatiko eta laneko istripuengatiko edo laneko gaixotasunengatiko aldi baterako ezintasun egoeretan.

- Amatasun edo aitatasun atsedenaldietan.
- Haurdunaldian eta edoskitzaro naturalean arriskua egon daitekeenetan.
- Lan harremana etetea eragingo duen edozein kasu.
- Prestazioa beste guraso, adoptatzaile edo hartzailearekin txandaka jasotzean.

Prestazioa honako kasu hauetan amaituko da:

- Lanari berriro bete-betea ekiterakoan edo lan-jarduera berriro bete-betea hastean.
- Adingabea zuzenean, modu jarraituan eta etengabe zaindu behar ez denean, osasunez hobeto dagoelako edo osatu dela eta alta medikoa eman diotelako.
- Adingabearen guraso, adoptatzaile edo hartzaileetako batek lan-jarduera uzten duenean. Hala ere, beste prestazio bat jaso ahal izango du lanari berriro ekiten dionean.
- Adingabeak 18 urte betetzen dituenean.
- Adingabea hiltzen denean.
- Onuraduna hiltzen denean.

Onuradunek prestazioa jasotzeko eskubidea etenaraz edo amaiaraz dezaketen gorabehera guztien berri eman behar diote Mutualitateari.